

azpeitian **zer?**

udal aldizkaria

169. zenbakia
2014ko abendua

ENERGIA AURREZTEKO



PROIEKTU AITZINDARIA

*Barrenetxe auzoko ur beroak igerilekura
bideratzeko lanak hasi dira*



Denon Artea
Azpeitiarrek
225 ekarpen
egin dituzte



Aurrekontuak
2015 urterako
18.362.892 euro
izango ditu Udaiak

ale honetan zer?

- 3 Azpeitia ezagutzen eta erabakiak
- 4 Aurrekontuak
- 6 Denon Artean balorazioa
- 8 Geotermia
- 10 Unitate didaktikoa
- 11 Euskara
- 12 Ekonomia
- 14 Motxean

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
 Egilea: Prentsa bulegoa
 Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
 Ale kopurua: 7.000
 L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria 943 15 71 85 (Alkatetza) telefonoan.

telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18
Alkatetza	943 15 71 85	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Idazkaritza	943 15 71 98	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75
Kontuhartzailatza	943 15 71 89	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Hirigintza	943 15 71 91	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Kultura	943 15 70 68	Udaltzainak	943 15 13 13	Kontsumitzaileen Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Komunikazioa	943 15 79 82	Suhiltzaileak	112	Baigera I	943 81 44 64
Kirolak	943 15 00 95	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera II	943 81 23 89
Parekidetasuna	943 15 79 28	Kiroldegia	943 81 30 69	Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Alkoholiko anonimoak	629 14 18 74



AZPEITIA GARDENA

Udaleko Ekonomia, Lana eta enplegua, Turismoa eta Elkartek sailtako informazioa edota Udal langile eta goi-karguen soldatak eta Udalaren zor-biziaren bilakaera ezagutu nahi? Azken urteetako aurrekontuak edo Udalak dituen 3.000 eurotik gorako fakturak kontsultatu nahi? Sar zaitetz **OPEN DATA** eta **KONTUAK GARBI** atarietan!

Azpeitia ezagutzen

**IRIKAITZEN
TRESNA OSO
ZAHARRAK AURKITU
DITUZTE.**



Lehendabiziko gizakiak

1996an Antxieta Arkeologia Taldekoek (Azpeitia) topatu zuten Irikaitz (Zestoa) aire zabaleko aztarnategia. Berezitasuna da aire zabalean Behe Paleolitoko aztarnak egoera primarioan aurkitzea (bere lekuan, zeuden bezala). Behe Paleolitoan landutako harriak agertzen dira, duela 250.000 urte ingurukoak.



erabakiak

Abenduaren 2an egindako Udalbatzan honako erabaki hauek hartu ziren:

- 1.- Azpeitiko Udalak azaroaren 4an egindako bilkuraren aktak aho batez onartu ziren.
- 2.- 2015erako aurrekontua Bilduren aldeko botoekin onartu zen. EAJ eta Hamaikabatek kontra bozkatu zuten.
- 3.- 2015erako Udalak diru-laguntzak emateko plangintza estrategikoa aho batez onartu zen.
- 4.- Ekonomia sustatzeko dirulaguntza helburua duen Azpeitiko eta Azkoitiko Udalen eta Iraurgin Lantzen S.A.ren arteko lankidetzak hitzarmena aho batez onartu zuten.
- 5.- Alkatetzak 2013ko urriaren 29an emandako Ebazpen deuseztagarria: interes publikorako kaltegarritzat jotzea aho batez onartu zen.
- 6.- Azpeitiko Plangintza Orokorrean Anara Ingu-runea 4. zenbakia duen hiritzako eremuaren arruan 4.3 "Esklabak-liturzulo" azpideremurako URBANIZATZE JARDUKETA PROGRAMA Bil-du eta EAJ taldeen aldeko botoekin onartu zen. Hamaikabatek kontra bozkatu zuten.
- 7.- Azpeitiko Udalak onartu duen herri-bideen in-bentarioan aurkeztutako errekurtsioen azterketa eta ebazpena aho batez onartu zen.
- 8.- Azpeitia Lantzen S.A.aren etxebizitzak alokairuan edota salmentan esleitzeko prozedura aho batez onartu zen.
- 9.- Azpeitiko herrian euskararen normalizazio bul-tzatzeko 2015-2017rako Plan Estrategikoa aho batez onartu zen.
- 10.- Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna: adierazpena instituzionala aho batez onartu zen.
- 11.- Alkatetzak 2014ko urtarrilean eta otsailan emandako ebazpenen berri eman zen.
- 12.- Galdera eta erreguak.



Azpeitiko 2015 urteko aurrekontuak onartu dira

18.362.892 euro kudeatuko ditu, ekonomia eta gizarte zerbitzuak lehenatasun hartuta

azpeitiko Udalak abenduaren 2an egindako Udalbatzan 2015 ekitaldirako aurrekontuak onartu zituen. Aurrekontua 18.362.892,83 euroko izango da eta udal Gobernuaren aldeko bozekin eta oposizioaren aurkakoekin onartu ziren.

Aurrekontuak osatzerako orduan, hiru iturri erabili dira; lehenik, herritar eta herriko eragileen ekarpenekin. Ekarpene horiek jasotzeko Udalak "Denon Artean" elkarlan prozesua martxan jarri zuen eta hainbat bileretan, ekarpen ugari jaso dira. Aurrekontuak osatzeko bigarren iturria Azpeitiko Plan Estrategikoa 2025 izan da. Plan Estrategikoaren jarraipen gisa, herritarrekin eta eragileekin, Udaleko arlo teknikoekin eta Udal zinegotziekin lehenatasunak zehazteko bilerak egin dira.

**Beharrezko egiturak
gingo dira; Urrestillarako
bidegorria, Barrenetxeko ur
beroa igerilekura eraman,
Salbe eta Agirre auzuneetan
hobekuntzak...**

Azkenik, Udal batzordeetan egindako ekarpenak kontutan hartu dira.

Honela, herriko ekonomiaren motorra izateko ahalegina egin du Udalak eta ekonomia sustatzen jarraitzea eta gizarte zerbitzuetan pausoak ematen jarraitzeko neurriak dira nagusia 2015eko aurrekontuetan.

Bost irizpideren arabera osatutako aurrekontuak dira:

1. **Ekonomia.** Ekonomia suspertzearekin jarraitu nahi du Udalak, krisiaren aurrean motorra izan nahi du. Horregatik, Iraurgi Berritzen garapen agentziaren aldeko apustua egiten jarraitzen du, sustapen plana, Gizarte Zerbitzuetatik antolatzen diren formazio saioak, Bertan eta Saiolanekin akordioak...
2. **Herritarren aldeko politika.** Azpeitiko tamainako udallerrien artean, Azpeitiko Udala da bakarra gizarte laguntza propioak dituen. Honela, laguntza jasotzen dituztenek konpromiso orria bete eta, besteak beste, euskara ikastaroak, herriko



ekimenetan parte hartu edo Udalak antolatutako formazio ikastaroak egiten dituzte. Gainera, beka sistema, etxebizitza politika, kooperazio laguntzak, San Martin... sustatzen jarraitzen da.

3. Zerbitzuen kalitatea mantendu. Udal barneko funtzionamendua hobetzeko prozesua abian jarri du.
4. Ingurugiroa zaindu. Hondakin bilteta sistema definitzea falta da, zaborra nola jasoko den.
5. Azpeitiarrentzat beharrezko azpiegiturak. Batzuk hasi dira dagoeneko; plaza, azoka plaza, igerilekua, Garmendiko espaloiak... Beste batzuk egiteko; Barrenetxeko ur beroak, Urrestillara bidegorria, plazako kioskoa eta urbanizazioa, Salbe eta Agirre auzuneetako lanak...

Inbertsio nagusienak:



- Ekonomiara zuzenean 637.873 euro
 - Iraurgi Lantzen 237.669
 - Loiola Berrikuntza 50.203
 - Sustapen Plana 350.000
- Etxebizitza politika 150.000 euro
- Gizarte Zerbitzuak 1.156.900 euro

Ekonomia eta gizarte zerbitzuak, azpeitiarren lehentasunak



Herritarren 225 ekarpen jaso dira Denon Artean eta Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa prozesuen baitan

Leugarren urtez jarraian, herritarren iritzi eta ekarpenak kontutan hartu nahi izan ditu Udalak aurrekontuak osatzeko orduan. Honela, Denon Artean prozesu parte-hartzailea azaroan jarri zen abian, eta 7 bilera egin ziren; bilera zabal bat, herritarrekin, beste bilera zabal bat, herriko talde eta eragileekin, bost bilera auzo ezberdinetako herrietarrek: Nuarbe, Aratz Erreka, Urrestilla, Lasao eta Matxinbentan.

Bilera hauetan, Udalak datorren urtera begirako dituen asmoak azaldu ditu, eta baita 2025erako plan estrategikoaren ingurukoak ere. Era berean, herritarren ideiak eta ekarpenak jasotzea nahi izan da aurten ere, herritarren beharrak hobeto ezagutu eta behar horien arabera aurrekontuak osatzeko.


Prozesua amaituta, Azpeitiko Udalak balorazio positiboa egin du. Izan ere, guztira 225 ekarpen bildu dira eta nabarmentzekoa da herritarren beharren lehentasunak, ekonomiaren eta gizarte beharren ingurukoak direla.

Ekarpen guzti hauek www.denonartean.net webgunean kontsultatu daitezke, bertan eskegi baititugu.

Bilera hauetan, Udalak datorren urtera begirako dituen asmoak azaldu ditu, eta baita 2025erako plan estrategikoaren ingurukoak ere.

“Proposamen horiek aztertu, beste lehentasunekin batera, osatu ditugu eta egingarriak direnak aurtengo aurrekontu proiektuan sartu dira: Sustapen ekonomiko partida, Gazteentzako alokairurako laguntzak, Bidegorri sarea indartu eta Urrestillarako egin, Herriko sarrera txukundu, Autokarabana gunea, Gizarte laguntzak...”, aurreratu du Udal Gobernuak.





Elkarlana eta gardentasuna

Laugarren urtea da Denon Artean prozesuaren bitartez Azpeitiko Udaleko aurrekontuak osatu direla. Elkarlan prozesu honen oinarri herritarren eta eragileen ekarpenak jasotzea da, eta era berean, Udaleko kontuen eta erabakien nondik norakoak herritarrekin elkarbanatzea edo konpartitzea.

Honela, Plan Estrategikotik datozen ekarpenak ere Denon Artean prozesutik bildutako ekarpenekin batu dira, bi prozesuak indartzuz.

AZPEITIA 2025 PLAN ESTRATEGIKOA

- Azpeitiko herria 2025 urtean nolakoa izango den edo azpeitiarrok nolakoa izatea nahi dugun aurreikusten du.
- 2012ko abenduan hasi zen lanketa eta 2013ko irailean amaitu zen.
- Hiru talde sortu ziren lanketa egiteko; Herritarren Mahaia, Teknikarien Mahaia eta Politikarien Mahaia.
- Prozesuak hiru fase izan zituen; Diagnostikoa, Formulazio estrategikoa eta Ekintza Plana.
- Planak 11 lerro estrategikotan egituratzen da guztira, 55 programa eta 237 ekintza zehatz jasotzen dituelarik.

Igerilekuko gas kontsumoa %80an murrizteko proiektu aitzindaria jarri da abian

Barrenetxeko ur beroko iturburuko ur fluxua isolatutako hodi bidez bideratuko dira




Krisi ekonomikoak sortutako egoera ikusirik, arlo guztietan aurrezteko ezinbestekoa da. Sail guztietan eman daitezkeen pausoak aztertzen ari da Udala azken urteetan eta horien artean, igerilekuko gastuak murrizteko asmoz, ideia aitzindaria abian jarri da. Izan ere, Azpeitiko igerilekuaren energia kontsumoa oso handia da. Erabiltzaile kopurua altua du igerilekuak eta erabiltzaile horiei ahalik eta zerbitzu hobereana emateko ahalegina egiten da. Honela, igerilekuetako urak edota dutxetako urak berotzeak eta girotze makinak erabiltzeak duten kostua oso altua da.

“Barrenetxeko ur beroko iturburua dago eta irtuburu honek sei-zazpi litro segundoko emaria du, eta urak 22-23 graduko tenperatura du”

“Urtean 111.380 euro ordaintzen ditu Udalak igerilekuko gas kontsumoan, hau da, hilean 9.300 euro. Gastu ikaragarria da. Horregatik, gastu hau murrizteko neurrien bila hasi ginen eta Barrenetxe auzoan iturburua zegoela ohartzuz, hori erabiltzea erabaki zen. Geotermia deituriko instalazio bidez”, azaldu du udaleko ingeniari teknikoa den Alfon Lizarralde.

Sanjuandegiko Barrenetxe auzoan ur beroko iturburua dago eta irtuburu honek sei-zazpi litro segundoko emaria du, eta urak 22-23 graduko tenperatura du. Honela, Azpeitiko Tinko STS enpresak egindako proiektuaren arabera, ur hori



igerilekura eramango da, tenperatura ez jaisteko gaitasuna duten isolatutako hodian bidez. Proiektu aitzindaria da, horrelako lanik ez baita ezagutzen Euskal Herrian.

Iturburutik igerilekura 300 metro dau-de eta batetik besterako hodia, igerilekuko sotoan bukatuko da. Hodia bero-trukagailu batean sartu eta bero bonba martxan jarriko dute: "Modu honetan, igerileku barruko gas eskararak elikatuko dira, etxeko berogailuak funtzionatzen duen modu berean. Hala ere, bero-ponpa horrek, gas naturalaren kontsumoa %80 ordezkatuko du. Igerilekuko energia kontsumoa 1.803.000

kilowatt-ekoa da orduko, eta bero-ponpa sistemak 1.400.000 kilowatt ordezkatuko ditu. Falta diren kilowatt-ak, berriz, egungo galdarek emango dute", dio Lizarralde.

"Gaur egungo gas naturalaren kontsumoaren urteko zenbatekoa 111.380 eurokoa bada, instalazioa berria egindakoan 23.000 eurokoa izango da urteko gastua"

Modu honetan, gas kontsumoan murrizketa nabaria lortuko da: gaur egungo gas naturalaren kontsumoaren urteko zenbatekoa 111.380 eurokoa bada, instalazioa berria egindakoan 23.000 eurokoa izango da urteko gastua. "Lanen aurrekontua 242.000 eurokoa da eta sei bat urtean amortizatuta egotea aurreikusten da. Hala ere, diru-laguntzak eskatu ditugu eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 77.000 euro emango dituela aurreratu digu jada".

Lanak dagoeneko hasi dira eta 2015 urte hasieran amaitzea aurreikusten da. Hiru zatitan egingo dituzte obrak, eta hiru enpresa arduratuko dira lanak egi-teaz: Tarte SL, Ekin eta Fundibide.

Unitate didaktikoaren bigarren alea

Aro Berritik Aro Garaikidera Azpeitiak izandako eraldaketa jasotzen du liburuxkak



azpeitia Ezagutzen proiektuaren bigarren liburuxka argitaratu da. Bigarren zati honetan, bi unitate didaktiko daude; Handitzen handitzen eta Jaso dugun altxorra eta hauei esker, Azpeitiko haurrek Aro Berritik Aro Garaikidera bitartean Azpeitiak izandako eraldaketa ezagutzeko aukera izango dute.

Olatz Aranguren historialariak aurreratu duenez, Agirretarrak familia sortu dute zortzi eta hamar urte bitarteko haurrentzat: "Familia horrek kontaktzen du Azpeitia nola handitu den: herriko auzoak eta inguruak, lanbide desberdinak eta emakumeek herria garatzerakoan izan duten garrantzia ere

azpimarratu nahi izan da. Era berean, natura landu da eta Azpeitiko animaliak, landareak, ibaiak nahiz mendiak, gerrak eta herriak izan dituen foruak jaso ditugu".

"Herriko auzoak eta inguruak, lanbide desberdinak eta emakumeen garrantzia azpimarratzen dira"

Azpeitia Ezagutzen proiektuaren hirugarren eta azken liburuxka udaberrian argitaratuko da, eta XIX.

XX. eta XXI. mendeak izango ditu oinarritzat.

Azpeitiko ondarea eta historia biltzen duen proiektu hau xumea dela azaldu du Mari Jose Iturria Hezkuntza zinegotziak, baina herriko Curriculumak osatzen joateko baliagarria izango dela ere nabarmendu du: "Poliki-poliki lekuko curriculumaren barruan kokatu nahi dugu. Azpeitiko, eskualdeko, historia, kultura, musika, hizkuntza, ohiturak... ezagutu, hedatu eta maitatu behar ditugu, denon ekarpenak behar ditugu, hauen baturak egiten baitu txikia handi. Horrelako lan xume eta baliagarrien metaketarekin osatuko baitugu lekuko eta euskal herriko curriculumak".

Herritarrrak domeinura salto egitera animatu nahi dira

Udal webgunea www.azpeitikoudala.eus bihurtu da jada

azpeitiko Udalak .eus domeinura salto egin du eta abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, www.azpeitikoudala.eus izatera igaro zen Udal webgunea. Puntu Eus Fundazioak, beste 1000 webgune baino gehiagorekin batera aktibatu zuen Azpeitiko udal webgunea, izan ere, Azpeitiko Udalarentzat garrantzitsua da euskera eta euskal nortasunaren aldeko pausoak ematen jarraitzea, eta internet, gaur egungo gizartearen duen oihartzun eta indarragatik, erakuslehi onena dela uste du.

Azpeitiko Udalarentzat garrantzitsua da euskera eta euskal nortasunaren aldeko pausoak ematen jarraitzea

Horregatik **.eus** bihurtzera emandako pausua funtsezkoa da.

Mota guztietako erakunde publiko, elkarte eta enpresek euren domeinuzenak .eus izatera igaro ondoren, publiko orokorrari zabaldu da eta Udal Gobernuak bereziki Azpeitiko herritarrek ere euskara eta euskal nortasunaren aldeko apustua egitera gonbidatu nahi ditu; puntu eus domeinuara salto egin eta eskaera luzatzera animatuz.

Euskararen egoera hobetzeko erreminta onartu du Udalak

azpeitiko Udalak 2015-2017 eperako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) onartu berri du joan den abenduaren 2an. ESEP Azpeitian euskararen egoera hobetzeko erreminta bat da: etorkizuna aurreikusteko eta etorkizunari aurre hartzeko erreminta. Azpeitiko Udalak herritarrekin hartzen duen konpromiso bat, askoren ahaleginaren emaitza.

Plan honek, Azpeitiko herritarren artean, euskararen erabateko normalizazioa lortzeko, lehentasunezko helburuak eta eragin eremuak identifikatzen ditu, hizkuntza politikako neurriak erabaki

eta aplikatuz euskaraz bizi nahi duten azpeitiarrei horretarako aukerak eta bermeak eskaini ahal izateko. Plangintza honek Azpeitiko gizarte-sarearen maila guztietan euskararen balio funtzionala eta sinbolikoa indartzea du helburu.



Hizkuntza plangintza berria hiru helburu estrategikoren inguruan antolatuta dago. Helburu nagusia euskararen erabilera dugu (administrazioan, enpresetan...). Erabilerarekin batera jabekuntzak (euskararen belaunaldien arteko transmisioak) eta elikadurak (euskarazko produktuak sortzea: aldizkariak, liburuak, informatikako programak, antzerkiak, musika...) osatzen dute helburu estrategikoen atala.

Laburbilduz, Euskara Sustatzeko Azpeitiko Ekintza Plana, euskararen berrikuntza eta aurrerapenerako, ezinbesteko kudeaketa erreminta dugu.

Ekonomiaren atea Kataluniara zabaltzen saiatuz

Manresarekin elkarlanerako bidea jorratzen hasi da Udala, emaitza itxaropentsuekin



azpeitiko herria eta herritarrak pairatzen ari diren egoera larria ikusirik, Udal Gobernuaren lehen-tasunetako bat bihurtu da ekonomia sustatzea. Krisiak gogor jo du herria, eta Azpeitiko Udal Gobernuak ekonomiaren berpikundean eta lanpostu duinen sorreran lehen-tasuna jarria du.

Azpeitiko herriak turismo arloan dituen aukerak ugariak dira eta denak lantzea ezinbestekoa da

Udalaren aldetik, nahiz eta eskumenik ez izan zentzu honetan, hainbat neurri eta pauso eman dira azken urteetan (sustapen plana abian jarri da, Saiolanekin akordioa, zerbitzu berriak ezarri, laguntza bereziak langabetuak kontratatzeagatik, formazio saioak antolatu...) baina ez da nahikoa, gehiago egin nahi da. Honela, herriko ekonomiaren atea Katalunia aldera zabaltzea erabaki da aukera berrien bila. Eta bereziki turismoaren arloa lan-tzea nahi da, Azpeitiak sail honetan dituen aukerak ugariak dira eta guztiak lantzea ezinbestekoa da.

Modu honetan, Ignaziotar Bidea oinarri hartuta, Manresa udalerriarekin elkarlanerako zubiak jorratzen hasi da Udala. Eneko Etxeberria alkatea buru zuten delegazio batek Manresa bisitatu



zuen azaroan eta Manresa eta inguruak bisitatzear gain, bilerak ere egin ziren bi udalerrien arteko interes turistikoak, kulturalak eta ekonomikoak elkarlanean lantzeko aukerak aztertzeko asmoz.

Emaitzak itxaropentsuak izan dira; izan ere, bi Udalen arteko sintonia edo harremana oso ona izan da eta bi herrietan turismoa eta arlo ekonomikoa sustatzeko ekintza konkretu batzuk elkarlanean egiteko akordioa landu zen. Gauza bera esan daiteke Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Aldundia eta Generalitatearen artean. 2015-2016 urteetan, bi udalerrietako eragileen artean aurrez definituriko plangintza baten arabera jarriko dira martxan sustapen eta dinamizazio ekintzak.



“Manresak izan behar du Azpeitiko produktuak Kataluniara sartzeko atea, eta alderantziz”

Azpeitiko Udala ziur dago elkarlan honek fruitu emankorrak izango dituela. “Manresak izan behar du Azpeitiko produktuak Kataluniara sartzeko atea, eta alderantziz, Azpeitia Manresako produktuak sartzeko Gipuzkoako atea. Bi udalerrien arteko ekonomia sustatzeko oinarritzat hartuta Ignaziotar Bidea, gure herrialdeak turistikoki indartzeko aukera ezinhobea dugu. Horretan lanean aritu gara eta jarraituko dugu”, agertu du Eneko Etxeberria alkateak.

Amaitzeko, Azpeitiko Udalak bereziki eskerrak eman nahi dizkio Manresako Udalari azaroan Azpeitiko delegazioari egindako harreragatik, eta hiria eta Montserrat ezagutzeko emandako aukeragatik.

Mankomunitatea, Enparan kalean



Urola Erdiko Mankomunitateak bulego berria estreinatu du. Honela, aurrerantzean Azpeitiko Enparan kaleko 34. zenbakian egongo da kokatuta. Horregatik, hemendik aurrera azpeitiarrek bulego berri honetan jaso edo eskatu beharko dituzte poltsa konpostagarriak, materia organikoa botatzekoak, eta edukiontzi marroiko giltzak. Bulego berriaren jendaurreko ordutegia honako hau da; astelehenetik ostiralera 08:00etatik 14:00etara eta astelehenetan eta ostegunetan arratsaldean 15:30etatik 18:00etara da.

Loiolako liburutegia, ikasleentzat zabalik

Loiolako Santutegiko liburutegia asteburuetan zabaldua dago ikasleek azterketak prestatu ahal izateko. Liburutegia irekita egongo den asteburuak honako hauek dira: abenduak 27 eta 28 eta urtarrilak 3, 4, 6, 10, 11, 17 eta 18 eta ordutegia berriz, 09:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 19:00etara bitartean da. Liburutegiko arduradunek agertu dutenez, oso garrantzitsua da liburutegira sartu ahal izateko karneta eduki eta sarreran zenbakia idaztea.



Armarri berriak areto nagusian

azpeitiko Udal areto nagusiak itxura berria du. Izan ere, Lapurdi eta Zuberoako armarriak gehitu dira azken egunotan. Modu honetan, Azpeitiko, Azkoitiko eta Iraurgiko (Azpeitia eta Azkoitia batera) armarriez gain, Euskal Herriko probintzia guztietako armarriez osatuta geratu da aretoa. Gainera, Gipuzkoako probintziak historian zehar izan dituen hiriburu guztien armarriak ere bertan daude; Tolosa edota Bergara, besteak beste.

agenda - abendua

19, ostirala

BADATOR OLENTZERO !
Ordua: 19:00 etan.
Lekua: Soreasun.

ERAKUSKETA: KOOPERAZIYO ASTIE
Lekua: Sanagustin Kulturagunean

20, larunbata

AZPEITIKO KIROLARIA-2014 EKITALDIA
Ordua: 12:30 etan
Lekua: Azpeitiko Udala.

ERAKUSKETA: KOOPERAZIYO ASTIE
Lekua: Sanagustin Kulturagunean

LORETO FIMAZ-en ORGANO EMANALDIA
Ordua: 19:15 etan
Lekua: Soreasuko Sebastian Donearen parrokian.

BORROKAN + AIOLILLIPUT KONTZERTUA
Ordua: 23:00 etan.
Lekua: Sanagustin Kulturagunean.

HAURRENTZAKO JOLASLEKUA
Ordua: 16:30etik 20:00etara
Lekua: Izarraitz Pilotalekua

SOREASU ANTZOKIA
Zine emanaldia
16:30 "Yugo eta Lala" (Euskeraz)
19:00 "Exodus: Dioses y Reyes"
21:30 "Exodus: Dioses y Reyes"

21, igandea

ERAKUSKETA: KOOPERAZIYO ASTIE
Lekua: Sanagustin Kulturagunean

SOREASU ANTZOKIA
Zine emanaldia
19:00 "Exodus: Dioses y Reyes"
21:30 "Exodus: Dioses y Reyes"

SANTO TOMAS

10:00etan IZARRAITZ TXISTULARIEN ESKUTIK
diana kaleetan zehar.

10:30etan Frontoi Txikian Patxi Azkargorta Pilota
Memoriala

Udal Musika Banda eta Elciegoko Gaiteroen kalejira

12:00etan XXXII. Antzerki Topaketetako Sari Ba-
naketa. Lakrikun Antzerki Taldearen "Non Gaude?"
antzezlari.

AZPEITIKO UDAZKENEKO AZOKA BEREZIA
-BASERRIKO PRODUKTOAK- GOIZ OSOAN ZE-
HAR AZPEITIKO AZOKA PLAZAN.

AIZKOLARI, HARRIASOTZAILE
JAIALDIA: FRONTOIAN

Plaza Nagusian BERTSOLARIAK: (Nerea Elustondo,
Unai Iturriaga, Sustrai Colina, Aitor Sarriegi)

Itsasiko Ttunturroen eta Musika Eskolako soinujo-
leen kalejira

13:00etan Erraldoiak, Buruhandiak eta Dultzainariak
kaleetan zehar.

18:00etan XIV DANTZA-SUELTOKO AZPEITIKO
TXAPELKETA
SANAGUSTIN KULTURAGUNEAN

22, astelehena,

Abenduaren 22tik 31 arte
BELEN ERAKUSKETA
IRAURGI IKASTETXEA
Lekua: Betharram Aretoa
Ordua: 18:00etatik 20:00etara

ERAKUSKETA: KOOPERAZIYO ASTIE
Lekua: Sanagustin Kulturagunean

GABON PARKEA
10 urte bitarteko haurrentzat
Sarrera: 2 €
Lekua: Izarraitz Pilotalekua
Ordua: 16:00-20:00

SOREASU ANTZOKIA
Zine emanaldia
19:00 "Exodus: Dioses y Reyes"
21:30 "Exodus: Dioses y Reyes"

GAZTERIA SAILAK ANTOLATUTA
GABON EKINTZAK

23, asteartea

Abenduaren 22tik 31 arte
ERAKUSKETA: MARIASUN
AIZPURUREN MARGOLANAK
Lekua: Sanagustin Kulturagunean

GABON PARKEA
10 urte bitarteko haurrentzat
Sarrera: 2 €
Lekua: Izarraitz Pilotalekua
Ordua: 16:00-20:00

GAZTERIA SAILAK ANTOLATUTA
GABON EKINTZAK

24, asteazkena

OLENTZERO
12:00etan Plaza Nagusian M^o DOMINGIN.
17:00etan Kalejira.

17:30etan Olentzero eta Mari Domingi ongi etorri
eta ondoren jaiotzak irtingo du Plaza Txikitik.

25, osteguna

MUSIKA BANDAREN EGUBERRITAKO
KONTZERTUA
Lekua: Sanagustin Kulturagunean.
Ordua: 13:00 etan

26, ostirala

AZPEITIA CUP FUTBOL TXAPELKETA
(AURRE FASEA)
Lekua: Kirolguneko belar artifizialezko zelaia
Ordua: goiz eta arratsalde.

GABON PARKEA
10 urte bitarteko haurrentzat
Sarrera: 2 €
Lekua: Izarraitz Pilotalekua
Ordua: 16:00-20:00

GAZTERIA SAILAK ANTOLATUTA
GABON EKINTZAK

27, larunbata

AZPEITIA CUP FUTBOL TXAPELKETA
(AURRE FASEA)
Lekua: Kirolguneko belar artifizialezko zelaia
Ordua: goiz eta arratsalde.

SASKIBALOI TOPAKETA (Iraurgi SB)
Lekua: Kiroldegian
Ordua: goiz eta arratsalde.

GABON PARKEA
10 urte bitarteko haurrentzat
Sarrera: 2 €
Lekua: Izarraitz Pilotalekua
Ordua: 16:00-20:00

SOREASU ANTZOKIA
Zine emanaldia
19:00 "Trash, ladrones de esperanza"
21:30 "Trash, ladrones de esperanza"

ExKISSitos + Ready Aim Fire kontzertuak
Lekua: Sanagustin Kulturagunean.
Ordua: 23:00 etan.

28, igandea

AZPEITIA CUP FUTBOL TXAPELKETA (AURRE FASEA)
Lekua: Kirolguneko belar artifizialezko zelaia
Ordua: goiz eta arratsalde.

SASKIBALOI TOPAKETA (Iraurgi SB)
Lekua: Kiroldegian
Ordua: goiz eta arratsalde.

ERNIARRAITZ BERTSO ELKARTEA
TXAPELEN OMENEZKO BERTSO SAIO
Lekua: Soreasun

GABON PARKEA
10 urte bitarteko haurrentzat
Sarrera: 2 €
Lekua: Izarraitz Pilotalekua
Ordua: 16:00-20:00

SOREASU ANTZOKIA
Zine emanaldia
21:30 "Trash, ladrones de esperanza"

29, astelehena

GABON PARKEA
10 urte bitarteko haurrentzat
Sarrera: 2 €
Lekua: Izarraitz Pilotalekua
Ordua: 16:00-20:00

Zine emanaldia
21:30 "Trash, ladrones de esperanza"

30, asteartea

GABON PARKEA
10 urte bitarteko haurrentzat
Sarrera: 2 €
Lekua: Izarraitz Pilotalekua
Ordua: 16:00-20:00
GONTZAL MENDIBILEN KONTZERTUA
Lekua: Soreasun
Ordua: 22:00etan

31, asteazkena

SAN SILBESTRE LASTERKETA
Modallitatea:
Patinetan: 11:30ean
Korrikan: 12:15ean.



ONDO PASATU

SANTU TOMASAK

2014



Azpeitiko Udazkeneko Azoka Berezia, dantza txapelketa, musika, buruhandiak, txorizoa, bertsolariak, pilota partidak... egun guztian zehar herriko kaleetan.



Azpeitiko Udalak dei egiten dizue azpeitiar guztiari eraso sexisten aurrean jarrera aktiboa har dezazuen. Eraso sexisten aurrean 112 eta 943 151313.

